



'Zerua eta garia' Ukrainarentzat





Irailean, Errosario kaleko 22an, Judith Zabalak atea irekiko dio YOGA Esentzia proiektuari. YOGA Esentzia eguneroko errutinatik ihes egiteko gunea izateko sortu da. Bertan, egunerokotik atsedena hartu eta yogaren laguntzaz, norberaren presentziaz gozatzeko aukera emango da.

Namaste.

22/23 Ordutegia

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata
ELGOIBAR	9:30 15:00 19:00	13:30 16:50 (Umeentzako yoga- ingelesez) 18:00	9:30 15:00 19:00	13:30 16:50 (Umeentzako yoga- ingelesez) 18:00	18:30 (Yoga 360)	Hilean 2 larunbat, goizetan. Yoga, familian, ume eta gurasoekin.
MENDAKO		9:15 19:45		9:15		

☎ 667 742 118
(Erreserbatu zure lekua)

📷 @yogaesentzia

🎁 (Opari-bxartel
pertsionalizatuak)

Zerbitzuak

- Yoga, taldean
- Yoga, bakarka
- Yoga+brunch (enpresa, lagun taldeentzat... Asteburuetan eta astean zehar)
- Yoga+bazkaria (enpresa, lagun taldeentzat... Asteburuetan eta astean zehar)
- Yoga + masaje lasaigarria (gorputza, oinak, aupergia eta zerbikalak)
- Masaje lasaigarriak
- Dietista zerbitzua (Laster martxan)

Irailean gurekin hasten direnen artean, ordubeteko masaje lasaigarri bat zozkatuko dugu.



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 [facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)

 twitter.com/barreneus

 [instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Edurne Izagirre

Psikologoa

Izan bidelagun



“Autokritika praktikatzen dugun heinean, besteekiko eta munduarekiko ere eskuzabalago eta malguago izaten ikasiko dugu”

Ondo egina edo gaizki egina, zintzoa ala gaiztoa, txurria ala beltza... Kontrakoen dikotomiak behar izaten ditugu haurtzaroan munduaren handitasun eta konplexutasunak gailendu ez dakizkigun gure txikitasunean. Baina gaitasunak garatzen goazen heinean, erronkak gainditzen eta helburuak betetzen, inguruarekiko kontrol sentipena sendotzen doa eta barne lege hauek malgutzen joaten dira errealtatera egokitzeko.

Geure argi-ilunak onartzen goazen heinean, autokritika praktikatzen dugun heinean, besteekiko eta munduarekiko ere eskuzabalago eta malguago izaten ikasiko dugu.

Baina hau, geure ibilbide eta esperientziak ikasgaitzat hartzen baditugu soilik gertatuko da, geure barnetik sortzen badugu geure egia. Eta hau, kanpoko egiei, bilatu gabe etortzen zaizkigunei, neurria jartzen badiegu bakarrik gerta daiteke.

Kontuan izan, prozesu hau egiteko garai naturala nerabearoa dela, ez ditzagun bakarrik utzi duten infokiazioa kudeatzen! Baina bizi guztian zeharrekiko ikasketa da, errealtatea etengabe aldatzen baitoa, eta errealtate berrietara egokitzea tokatzen zaigu. Elkarri entzun, elkarrizketak izan, pentsarazi, elkarri geure esperientziak kontatuz, munduko kolore anitzak ezagutu, jakinmina elikatu, bidelagun izan.

Honela bakarrik mantenduko dugu gure gizatasuna, aurrez aurre, zintzotasunez topatzen garenean, enpatia eta elkar ulertzea da bultzada naturala; baina ausartu behar gara geure egiak astintzen eta berritzen, zelaia berde egotetik horitzera joan daitekeen moduan, pentsatzeko eta ekiteko moduak ere aldatzen doaz eritmo naturala jarraitzen badugu.

Jorge Drexler-ek “Movimiento” abestian dion bezala, “zerbait hiltzea nahi baduzu, utzi geldirik”.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Nafarroako suteen kalteei aurre egiteko, diru-bilketa kanpaina parte hartzeko deia

Errigorak diru-bilketa kanpaina jarri du martxan Nafarroan suteek sortutako kalteei aurre egiteko. Ekainean 15.000 hektarea erre ziren, 12.000 hektarea baso eta 2.000 hektarea laborantza-lur baino gehiago. Panorama tristea. Egoera gogor honen aurrean, Errigorak 10.000 euroko ekarpena egin du, eta euskal herritarroi ere hori egiteko eskatu digute, nork bere ahalmenaren neurrira noski.

Dagoeneko bi lan-ildo zehaztu dituzte: suteak zabaltzea zailtzeko eta herri-guneak babesteko suebaki berdeak sortzea, eta abeltzaintza estentsiboa sustatzea, ganadua izan dadin suhiltzaile eraginkorrena. Guzti hau kudeatzeko eta diruaren erabilera ahal bezain eraginkorrena izango dela ziurtatzeko sei pertsonako mahai bat osatu dute. Ekarpene egiteko bi modu daude Errigoraren webgunean: kontu korrante zenbaki bidez (ES61 3035 0042 94 0421091052) edo banku txartelaren bidez. Uztailaren 15era arte luzatu dute ekarpenak egiteko epea. Animatu zaitzete ekarpenak egitera! Atera dezagun txarrenetik onena; izan daitezela errautsak ongari.

Z.A.

Eskerrik asko

Eskerrak eman nahi ditugu Bihotzetik enpresaren eta beste hainbat herritako elkarteen elkarlanari esker (Bidegin, Zain Bizi, Bidasoa zurekin, Zarautz herri Zaintzailea) Elgoibarko herriari dolauren inguruko jardunaldiak eskaintzea posible izan delako. Baita Elgoibarko Udalari ere, hau aurrera eramateko eman digun babesagaitik.

Almaur Elkarteko kideek 12 saio eman ditugu Gipuzkoako sei herritan, tartean Elgoibarren. Gipuzkoan eman diren 42 saioetatik, zazpi Elgoibarren izan dira, eta profesional desberdinak entzuteko aukera izan dugu: Dolutik Bizitzara, heriotza duina, azken borondateen dokumentua, zainketa aringarriak etxean, zine forum, dolauren prozesu naturala, bizitzen ikasi hiltzen ikasi... Saio hauetan 179 herritarrek partu hartu dute, eta batez beste, saio bakoitzean 25 parte-hartzaile izan dira. Parte-hartzaileen batez besteko adina 58 urtekoa izan da. Gazteenak 22 urte, eta zaharrenak 90. Horietatik 154 emakumezkoak eta 25 gizonezkoak.

Almaur elkartean orain dela bi urte pasa hasi ginen herrian nabari genuen hutsune honi arreta jartzen. Doluan laguntzeko zerbitzua, Death kafea, murala, ahulki hutsak, aholkularitza, hitzaldiak... argi daukagu beharra handia dela, nahiz eta gaiak bildurra eman. Parte hartu duen edozeinen iritzia entzutea baino ez da behar, jardunaldi hauen onurak ikusteko.

Jarraituko dugu lanean eta zabaltzen dizuegu deia herriko zaintzan zabilatzateno, sare lana beharrezkoa delako egunerokoan pasatzen diren ezbeharrak, zailtasunak edo kudeaketak hobeto kudeatzeko. Bizi-kalitatea hobetzeko ezinbesteko zerbitzuak direlako, jarraitzen dugu elkarlanean, Elgoibar herri Zaintzaile Sarearen beharra sortuz.

Almaur Elkartea

Oharra

Datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko, baina bulegoan izango gara 08:00etatik 14:30era. Hurrengo zenbakia uztailaren 22an jasoko duzue, eta uztailaren 29koa opor aurreko azken alea izango da.

BARREN



BARREN astekariak kazetaria behar du asteburuetan lan egiteko

ESKATZEN DA:

- Elgoibarren eta Mendaron dauden ekitaldien jarraipena egitea.
- Argazkilaritza eta bideogintzaren oinarritzko ezagutzak.
- Webgune eta sare sozialen ezagutza.

Interesatuak bidali CV helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



Edozein lekutan sua piztea arriskutsua da:

"Garagartzako elizako atarian sua egin izan du jendeak eta dena belztuta eta zikin-zikin laga bazterrak. Ezkutuan gelditzen den lekua da, eta ezkutura batzen dira gazte asko, herrikoak zein kanpotik etortzen direnak. Eskatuko genieke mesedez bakean daudenak bakean lagatzeko eta ingurua zaintzeko".



Zapatuetako ondorioek luze irauten dute:

"Zapatu gauetan Elgoibarko kaleetan sortzen diren istiluak jasanezinak bihurtzen ari zaizkigu, baina horrez gain, istilu horien ondorioek luze irauten dutela iruditzen zait. Ez dago onartzerik zapatuetako istiluek lagatako odol putzuak astelehenean oraindik garbitu gabe egotea ume eta adinekoak ibiltzen diren inguruetan".



Zigarrokinak lurrera botatzen ditu jendeak:

"Azken asteotan gure umeek jolas berri bat asmatu dute, etxerako bidea eramangarriago egiteko: lurrean ikusten dituzten zigarrokinak kontatzen hasi dira. Zenbat eta gehiago zenbatu, orduan eta gusturago joaten dira umeak, jakina, baina guraso bezala, zer pentsatua eman dit. Banekien erretzaileek ohitura hori zutela, baina fijasen hasita, izugarria iruditu zait. Txakur-jabeek txakurren kakak jaso behar dituzte eta erretzaileek ez lituzkete zigarrokinak lurrera bota behar".



San Fermin Txiki Eguna ospatu dute Mendaron

Mendaroko udalekuetako umeek San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten eguaztenean, Iruñeko San Fermin festak hasi ziren egun berean, hain zuzen ere. 11:30ean bertsoa kantatu zuten, eta ondoren, San Ferminen aldeko kantua. Txupina bota ostean, entzierroa egin zuten. Eguraldi txarragatik, Ikastolako patioan izan zen ekitaldia.



Karakate Bizirik plataformak kontzertuak antolatu ditu gaur zortzirako

Karakate Bizirik plataformak bere dinamikarekin jarraitzen du, Karakateko eoliken proiektuaren ondorioak sozializatuz eta haren aurka indarrak batuz. Horren harira, kontzertua antolatu dute datorren barikurako: Gabi eta Alfonso bikotea eta K.GA.T gazte elgoibartarrek osatutako taldea izango dira oholztan. Maalako

parkean izango da, 20:00etatik aurrera.

Bestalde, egun horretan aterako dituzte jendaurrera plataformaren kamisetak ere, eta Maalan bertan erosi ahal izango ditu nahi duenak. Era berean oraindik proiektuaren aurka sinatu ez duten herritarrek aukera izango dute bertan sinatzeko.

Elgoibarko eta Mendaroko liburutegiek udako ordutegia dute

Elgoibarko eta Mendaroko liburutegiek beste ordutegi bat izango dute udan. Mendarokoa 10:30etik 13:00etara zabalitzen dute, astelehenetik barikura, eta uztailearen 22an itxi egingo dute, irailaren 1era arte. Elgoibarkoa, berriz, 8:00etatik 14:00etara egoten da zabalik, astegunetan, eta abuztuaren itxita egongo da.

Zahartzaroari omen bazkarian izena emateko epea zabalik dago

Santa Ana Jaietan zahartzaroari omen bazkaria egingo dute Aizpen, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Uztailearen 24an izango da, 14:30ean. Interesatuek uztailearen 12a baino lehen eman beharko dute izena ondorengo establezimenduetan: Roteta, Coviran, Lagun Betikoak eta Sonia.

San Bartolome jaietako jubilatuen bazkarirako izena emateko epea zabalik dago

Abuztuaren 28an egingo dute aurten jubilatuen bazkaria, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Interesatuek, uztailearen 29rako eman beharko dute izena, jubilatuen

biltokian, astelehen edo barikuetan, 11:00etatik 12:00etara. Bazkariaren prezioa 7 eurokoa da. Izena emateko ezinbestekoa izango da NAN erakustea.

Taberna eta jatetxeetan euskara aintzat hartzera gonbidatzeko kanpainarekin bat egin du Mendaroko Udalak

Hirugarren aldiz, bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzeko kanpaina egingo du uda honetan ere UEMAK udalerrri euskaldunetan, eta Mendarok ere bat egin du kanpainarekin. *Bertatik Bertara* kanpainarekin, bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi du UEMAK, ekimenean parte hartuko duten udalekin eta garapen agentziekin batera, tartean Mendaroko Udalarekin. Horretarako, bisitariarentzat eta zerbitzu sektoreko arduradunentzat eta langileentzat hainbat baliabide prestatu ditu: Udalen webguneetarako eta sare sozialetarako bannerrak eta testuak, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko mahai gainekoak, zerbitzu sektoreko eragileei kanpainaren berri emateko baliabideak, bisitariak telefonoetan erabili ahal izateko oinarritzko hiztegia...

Mendaron, paperezko mahai-zapiak banatuko dizkieteostalariei, udakodenboraldian erabiltzeko. Zerbitzua euskaraz ematearen garrantzia nabarmentzea eta herriko establezimenduetako paisaia linguistikoa euskalduntzeko lanean sakontzea direla nabarmendu dute Udaletik.

Altzolako haur parkea erabiltzeko moduan dago



Elgoibarko Udalak maiatzean hasi zituen Altzolako haur-parkea berritzeko lanak, eta dagoeneko erabiltzeko prest dago. Iazko abenduaren 10eko ufaletan urak estalita gelditu zen jolas-parkea, eta urak eragindako kalteak konpondu dituzte. Joko guztiak ordezkatu dituzte eta kautxuzko zoladura berria jarri dute. Auzoko bizilagunen eskaerari erantzunez, parkea plaza bereko gune eguzkitsuago batera lekualdatu dute, eta lehen parkea zegoen eremuan lorategi-gune bat egin dute. 110 metro koadroko azalera du jolas-parke berriak, eta 37.292,92 euroko (BEZ gabe) aurrekontua izan dute lanek.

Meliton zubiko barandak garbitu eta margotu dituzte

Meliton zubiko barandak garbitu, saneatu eta margotu dituzte. Udaletik azaldu dute Herria "eraberritu eta txukun mantentzeko" helburuarekin egiten diharduten lanen barruan hasi dituztela lanok, duela aste batzuk San Pedro zubia txukuntzen hasi zutena. Lanen aurrekontua 6.287 eurokoa izan da, BEZ gabe.



Oinezkoentzako bidea prest, Lerungo industrigunean



Lerungo industrigunearen jabeen batzarrak, industrigunearen urbanizatzea amaitu du, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, oinezkoentzako gune bat sortuz. Oinezkoentzako konexio segurua eta eroso sortzea izan da obraren helburua, pasabidearen eta biribilgunearen artean. Obra hau aprobetxatu dute falta ziren edo egoera txarrean zeuden hormigoizko baranda-zatiak berritzeko eta garbitzeko. Zuhaitzak udazkenean landatuko dituzte, ingurunera errazago errotzeko. Obra honen inbertsioa 119.118,28 eurokoa izan da, BEZa barne.

Langabezia-tasak behera egin du ekainean Debabarrenean

Langabezia-tasak behera egin du ekainean Debabarrenean, eta herri guztietan igarri da hobekuntza hori. Elgoibarren, esaterako, %8,13an dago orain langabezia-tasa (maiatzean baino %0,41 txikiagoa da egungo zifra). 441 langabe daude Elgoibarren, eta maiatzean 463 zeuden. Mendaron, berriz, %6,69an dago langabezia-tasa, eta 68 lagun daude lanik gabe,

maiatzean baino hiru gutxiago, alegia.

Debabarreneko langabezia-tasa %9,85ekoa da, eta 2.581 pertsona daude lanik gabe, maiatzean baino 70 gutxiago. Eskualdeko herrien artean, Soraluze da langabezia-tasarik altuena duena, %12,17 eta, aldiz, Debak dauka baxuena; %5,86. Eibarren, bestalde, %11,84koa da langabezia-tasa, eta 1.503 lagun daude lanik gabe.

Errigorak diru-bilketa abiatu du, Nafarroako suteen kalteei aurre egiteko

Nafarroan 15.000 hektarea erre dira ekaineko suteetan: 12.000 hektarea baso eta 2.000 hektarea laborantza-lur baino gehiago. Errigora ekimenak diru-bilketa abiatu du, eta irabaziak bi helbururekin erabiliko dituzte: suebaki berdeak sortzeko eta abeltzaintza estentsiboa sustatzeko. Errigorak berak 10.000 euro jarri ditu, eta euskal herritarrei ekarpena egiteko eskatu die, bakoitzak ahal duena emanaz. Gauzatuko dituzten proiektuak zeintzuk izango diren erabakitzeko eta diruaren erabilera ahal den eraginkorrena izan dadin, sei pertsonako mahai bat osatu dute. Mahaia osatzen duten pertsonak honakoak

dira: Mirian Otxotorena, CPAEN Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko lehendakaria; Mikel Tabar, Tafalla-Zagozaldeko basozaina; Victor Rubio, suhiltzailea; Patxiku Irisarri, EHNE-Nafarroako idazkari nagusia; Juan Carlos Castillo, Azkoiengo alkatea eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren lehendakaria; eta Imanol Ibero, nekazaria eta Errigorako kidea. Ekarpene egiteko *errigora.eus* webgunean dago aukera: kontu korrante zenbakia (ES61 3035 0042 94 0421091052) edo banku txartelaren bidez. Uztailaren 15ean amaituko da ekarpenak egiteko epea.

"Protagonismo guztia" beretzat hartu nahian ibiltzea leporatu dio Mendaroko EH Bilduk EAJri

EH Bildurekin elkarlana abiatzeko borondaterik ez izatea egotzi dio Mendaroko EH Bilduk EAJri. Eta azkeneko asteetako bi gertakizun eman ditu argudio gisa. Batetik, esan du, Mendaroko sarbide berriaren aurreproiektua "ezkutuan" mantendu duela EAJk, eta gai horren inguruan "informazioa sarri eskatu arren, berririk ez dagoela" erantzun izan diela beti alkateak, "azkeneko maiatzaren 19ko informazio batzordean". Duela aste pare bat Foru Aldunditik aurreproiektua aurkeztera etorri zirenean soilik medioak konbokatu zituztela gogorarazi dute, "hiru urte hauetan gaia hurbiletik jarraitu eta ekarpenak egiteko ahalegina egin dugun herritar nahiz zinegotziok bazterrean utzita". Bestetik, uholdeen gaian ere EH Bildu "zokoratu" egin dutela salatu dute. Horren harira gogorarazi dute uholdeetan kaltetutako auzotarrek eskatuta batzorde berezi bat sortu zela gai horri konponbidea

bilatzeko, eta gai horretan elkar hartuta joatea eskatu dutela behin eta berriz auzotarrek, baina EH Bildu ez duela EAJk kontuan hartu. Honela diote zabaldu duten prentsa-oharrean: "Batzorde horrek egin dituen azken bi batzarretara EH Bildu deitu ere ez du egin Mendaroko alkateak, auzotarren eskaerari muzin eginez, lotsagabe. EAJren asmoa argia da: argi gera dadila Mendaron soluzioak EAJren eskutik datozela eta ez beste inoren eskutik". EAJri gogorazi diote hauteskundeetan EH Bildu izan zela alderdi bozkatuena (451 boto eskuratu zituen, eta 412 EAJk). "EAJk jakin beharko luke EH Bildu mespretxuz eta harrokeriaz tratatzen duenean, EH Bildu bozkatu zuten herritarrak mespretxatzen dituela". PSE-EErentzat ere badu mezua: "EAJk agintaldi honetan gehiengorik izan gabe, gehiengo izan balu bezala agindu izana PSEren ardura da oso-osorik".

ZELETA

BARAZKIAK

690 288 002

NEKAZARITZA BABESTUA

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoak erabili gabe.

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

ZELETA BASERRIA
Aiestia auzoa (Elgoibar)





Antolatzaileak Udal gobernuko ordezkariekin

■ ■ Bihotz oneko jende askoren baturatik sortu dugu 'Zerua eta garia' egitasmoa ■ ■

**FELIX
ASTIGARRAGA,
JULIAN SEGUNDO
ETA ESTI GONZALEZ**

Antolatzaileak

✍️ Ainara Argoitia

Ukrainako egoera ezagutarazteko eta Ukrainari laguntzen ari diren elkarteentzat ahalik eta diru gehien biltzeko, lau eguneko garagardo azoka antolatu du herritar talde batek Mendaron uztailaren 14, 15, 16 eta 17rako. Udalean ordezkarietza duten hiru alderdien babesarekin abiatu zuten proiektu solidarioa eta herri oso baten laguntzarekin gauzatu nahi dute. Horretarako dozenaka ate jo dituzte azkeneko hilabeteotan laguntza eske eta oso eskertuta agertu dira jaso duten babes, ekarpen ekonomiko eta parte-hartzearekin. Lanerako boluntarioen zerrenda ere zabaldu dute, eta edozenbat mendarotarrek agertu dute prestutasuna. Azokaren nondik norakoak ezagutzeko, baina, ekimen honen sustatzaile nagusi diren Felix Astigarraga eta Julian Segundorekin eta Asociación Chernobil Elkarteko kide den Esti Gonzalezekin elkartu gara. Parte-hartzera deitu dute.

Lau eguneko garagardo azoka, herriko jaien atarian. Ez duzue erronka makala jarri!

Julian: Bai, lehenengo aldia izateko erronka handiegia dela esan izan digute, eta badakigu geuk ere ez dela erronka txikia, baina uste dugu Mendaroko herriak baduela gaitasuna erantzuteko, ikusi dugulako mendarorrek nola erantzuten duten herrian antolatzen diren beste ekintza edo ospakizunetan. Lau egun izango ditu gure azokak, eta egun bakoitza giza-talde bati eskainiko diogu; lau jai txiki izango dira. Elgoibarko Sanlo eskubaloi taldekoei eskatu diegu aholkularitza, logistika eta antolakuntza-lanak lotzeko, aurrez antolatu izan dituztelako halako azokak eurek, eta orain, espero dugu jendeak erantzutea; jendea etortzea kontsumitzera eta egingo diren ekintzetan parte hartzera. Inguruan izaten ditugun azokekin konparatuta, gureak uztailaren 15eko eguna izango du berezia. Enpresentzako eguna izango da eta antolatzeko herriko enpresetara jo dugu, laguntza eske. Batzuek dirua eman digute, beste batzuek materiala eman digute oparitan banatzeko eta bazkaritarako tiketak eskatu dituzte beste batzuek, langileak etortzeko. Iruditzen zaigu azoka aukera polita dela enpresetakoek uda aurreko bazkariak egiteko, eta orain arteko datuekin esan dezakegu 200 bat lagun etorriko direla. Gustura hartuko ditugu, baina, gehiago ere, prestatuta gaude-eta.

Nola eta zergatik bururatu zitzaizuen garagardo azoka antolatzea?

Felix: Goiz batez kafea hartzen geundela bururatu zitzaizun Juliani eta bioi ondo legokeela zerbait egitea herriko eragileentzat eta herrian lan egiten duten gobernu kanpoko erakundeentzat dirua biltzeko. Otsailean izan zen hori, eta ideia horri bueltaka ari ginela, gerra hasi zuen Errusiak Ukrainan eta jakin genuen nola milaka lagun ari ziren beren etxeetatik ihes egiten. Berehala jakin genuen familia batzuk Mendarora ere etortzekoak zirela eta egoera horretan iruditu zitzaizun erantzun behar geniola horri, lagundu behar geniela errefuxiatuei.

Esti: Bai, bilera batera deitu gintuzten martxo hasieran Felixek eta Julianek ukrainarrei laguntzen aritzen diren hiru elkarteetako ordezkarioi, eta guk esker hitzak baino ez dauzkagu haientzat, Ukrainako egoera oso gogorra delako oraindik ere, nahiz albistegiak zabaltzeari laga dion. Bilera hartan galdetu ziguten ea interesatzen

"Iruditzen zaigu garagardo azoka hau aukera polita dela enpresetakoek uda aurreko bazkariak egiteko"

zitzaizun ekimena eta baiezkoa balitz erantzuna, ea azokari ukitu ukrainar hori ematen laguntzeko biderik ikusten genuen, ea ahalko genuen gure elkarteetakoak ekarri testigantza ematera eta ea Ukrainari lotutako ekintzak antolatzen laguntzeko aukerarik ikusten genuen. Eta horretara mugatu gara gu, gainerako guztia beraiek hartu dutelako beren gain. Azokaren antolakuntzan %10a jarri dugu guk, elkarteetakoek. Ukrainako jantzien erakusketa antolatu dugu, Ukrainako koroak eta panpinak egiteko tailerra ere bai eta azokako lehen eguneko jatekoa ere geuk prestatuko dugu. Borscha prestatuko dugu, Ukrainako plater berezia. Ukrainan ez ezik Europa ekialdeko herrialde askotan prestatzen dute barazkiz, lekalez eta haragiz egindako gisatu moduko hau eta joan zen astean Gizateriaren Kultur ondare ez-materiala izendatu zuen Unescok eta Ukrainarekin lotu. Sekulakoa izan da hori ukrainarrentzat! Borscha prestatzeko errezeta ugari daude, jakina, baina hemen jango duguna gerratik ihesi Mendarora etorri den emakume batek, Nina Ilnytskay, prestatuko du Kilimon elkartearen, gu denon laguntzarekin. Borsch gorria prestatuko dugu.

Zeintzuk elkarerentzako izango da azokan bilduko duzuen dirua?

Esti: Asociación Chernobil Elkartearen, Chernobilen Lagunak eta Ukraina-Euskadi erakundearentzat. Mendaron hiru familiak dugu elkarte hauetakoren batekin lotura. Gure herrian urte asko dramatzan Yulia Prokopenko (Cherkasy, Ukraina), esaterako, Ukraina-Euskadi elkarteetako kide da. Kultur elkarte bat da hau, Euskal Herrian bizi diren ukrainarrek beren artean harremantzeko sortutako elkartearen eta Donbasseko gerraz geroztik indar handia hartu duena. Beste bi elkarteek beste egiteko bat dute: Txernobil inguruan bizi diren klase apaleko familietako haurrak udan eta Gabonetan Euskal Herrira ekartzea harrera-familietara. Gure etxeokoa, esaterako Asociación Chernobil

Elkarteko kide gara eta Rosa Babarro eta Dorleta Aranbarri ama-alabak, Ainhoa Garro eta Oscar Aizpurua senar-emazteak eta Idurre Arakistain, berriz, Chernobilen Lagunak elkartekoak. Bi elkarte horiei esker etorri dira urte ezberdinetan Mendarora Makcim eta Yana Semenyuk nebarrebak (8 urtez etorri zen Makcim eta hiru urtez eta aurtengo Gabonetan Yana), Inna Ilnytska (12 urtez etorri zen), Nastia Petrenko (11 urtez etorri zen) eta Anna Koval (2 urtez) eta bi elkarte horien bidez etorri dira Euskal Herrira, gerratik ihesi, Inna eta bere ama Nina eta Anna Koval eta haren ama Oksana eta bi neba-arreba gazteagoak: Nastia eta Nazar. Azken laurak gure etxean daude harreran, eta horiek ekartzeko, Galdakoko Boluntarioen Gizarte Elkartean eta CC Ayuda al Desallorro gobernuz kanpoko erakundearentzat ari ziren boluntario batzuen laguntza ere izan genuela nabarmendu nahi nuke.

Bi elkarteon funtzioak aldatuz joan dira azken hilabeteotan ahal izan den moduan. Udako programek ez dute zentzurik gaurko egoeran eta orain bi eginkizun nagusi dauzkagu: Ukrainan gelditu diren familiei laguntzea giza-laguntza bidalita eta hona etorri nahi dutenei bidea erraztea. Horretarako, gure elkarteak, esaterako, aparteko kontu bat sortu du, herritarrek egiten dituzten diru-ekarpenak eta Euskal Herrian han eta hemen egiten ari diren elkartasun ekintzetan batzen den dirua kudeatzeko.

Nola osatu duzue azoka egunetarako egitaraua?

Julian: Saiatu gara ekintzak lotzeko herrian dauzkagun talde espezializatuen aholkularitza lortzen. Musika lotu nahi dugula, ba jo dugu Gararockekoengana; xake-partidak antolatu nahi ditugula, ba jo dugu Otarre klubera. Baliteke herriko eragileren batekin ahaztu izana, baina saiatu gara herrian dugun ezagutza aintzat hartzen. Egia da denbora gainera etorri zaigula eta ez dugula egin beharbada egin beharko genukeen moduan, baina uztailean egin nahi genuen azoka, jaien aurretik, abuztua hilabete hila delako Mendaron, udazkenean ez genuelako ikusten eta gainera, gerraz ere gero eta gutxiago hitz egiten delako. Edozelan ere, ahalegindu gara herriko jendearekin lotzen hau dena, ez genuelako ulertzen beste moduan egin zitekeenik. Eta esan beharra daukagu jendeak oso ondo erantzun duela eta jo dugun ate bakar baten ere ez dugula ezetzik jaso laguntzeko. Eta esan nahi nuke, baita ere, proiektu hau Udalean

"Ahalegindu gara herriko jendearekin lotzen hau dena, ez genuelako ulertzen beste moduan egin zitekeenik. Garagardo azokak Mendaroko marka izango du"

ordezkaritza duten hiru alderdien babesarekin gauzatuko dugula, garbi geneukalako hasieratik herri oso baten proiektua izan behar zuela honek, ondo baitakigu herri txikietan bereziki zenbat begiratzen diogun zein dagoen ekimen baten atzean. Hau ez da argazkian gaudenon kontua, hau ez du, ezta ere Udalak antolatu; hau mendararren artean gauzatuko dugun elkartasun ekimen bat da eta Mendaroren marka eramango du.

Felix: Hori da. Ate asko jo ditugu, mesede asko eskatu ditugu eta iruditzen zait *Zerua eta garia* egitasmoa bihotz oneko jende askoren baturatik sortu dela.

Azokako gune zentrala frontoian egokituko duzuela aurreratu duzue, eta egunean 200 bat lagun batzea espero duzuela jatorduetan. Nola antolatu duzue? Non hartu beharko dira tiketak?

Felix: Osteguneko afaritarako menua berezia izango da: Borscha prestatuko dugu eta Galletiak-ek emandako postrearekin osatuko dugu afaria, eta 8 euroan saldu. Egun horretarako bereziki aurrez izena ematea eskatzen ari gara, 943 030 150 telefono zenbakira deituta. Azokan sartzeko erosi beharko da pitxarra, 2 euroan. Gainerako egunetarako menua ohiko garagardo azoketako izango da: Ukondo errea (12,50), oilasko izterrak (11,50) edo saltxitxak (7,50), eta kafea barne. Hori bai, barikuan, bazkaritan, menu itxia eskainiko dugu, 20,50 euroan (konbinatuarekin, 25,50 euroan): ukondo errea, oilasko izterrak edo saltxitxak, kafea eta postrea. Enpresen eguneko bazkariaren inguruan azpimarra bat ere egin nahi nuke. Egun horretan pitxarra itzultzen dutenei Kilimontxo bana emango diegu eta Kilimontxo horrekin ostiral arratsaldean egingo diren ekintzetan -zezen mekanikoa, saskiratzeak, futbolina...- parte hartu ahal izango dute eta parte hartzeagatik sari erakargarrien zozketan sartuko dira. Laguntzaileek oparitarako emandako sariak zozkatuko ditugu: otorduak eskualdeko izen handiko jabetxeetan,

Errioxako ardandegietara bisitak... Haurrentzako eta helduentzako opariak dauzkagu banatzeko.

Afaria hartu eta etxera eramateko aukera ere eskainiko dugu, baina bakarrik saltxitxak aukeratu ahal izango dira.

Julian: Bai, eta nabarmenduko genuke garbi dakienak etorriko dela aurrez izena emateko mesedez, antolakuntza lanak errazteko, nahiz eta, jakina, datozen guztiei emango diegun jaten. Eta dei berezi bat ere egingo nieke herritarrei,

barikuan, hilaren 15ean, afaltzera etortzeko.

Lanerako boluntarioen zerrenda ere zabaldu duzue. Zer erantzun jaso duzue?

Esti: Jende mordoska batek eman du izena lanerako eta oso eskertuak gaude, jakina, baina nabarmendu nahi genuke laguntzeko modu asko daudela, eta azokara etortzea eta antolatuko diren ekintzetan parte hartzea ere oso lagungarri izango zaigula, eta ongietorriak izango direla denak ■

EGITARAU

■ UZTAILAK 14, OSTEGUNA

17:30-19:30 Ukrainako jantzi tradizionalen erakusketa, jubilatuen ondoko lokalean.

18:00-20:00 'Zerua eta garia' proiektuaren eta diruz lagunduko diren hiru elkarten aurkezpena eta testigantzak, San Agustin kulturgunean.

18:00-20:00 Ukrainako koroak egiteko tailerra haurrentzat, Garagartzako plazan. (Eguraldi txarra egingo balu, Gaztelekuan)

20:30-22:00 Ukrainako afari berezia, frontoian.

22:00 'La Zona' filmaren proiektzioa, San Agustin kulturgunean.

■ UZTAILAK 15, BARIKUA

10:30-12:30 / 17:30-19:30 Ukrainako jantzi tradizionalen erakusketa, jubilatuen ondoko lokalean.

12:00-14:00 'Zerua eta garia' proiektuaren eta elkarten aurkezpena, San Agustin kulturgunean.

14:00 Enpresetakoen bazkaria.

18:30 Enpresetakoen arteko futbolin eta hiruko saskiratzeen txapelketa eta Esther DJa.

19:00 Zezen-mekanikoko txapelketa.

20:30 Afaria.

23:30 Esther DJa eta Vandeeep Dja.

01:00etatik aurrera jaiak Ormola tabernan izango du jarraipena.

■ UZTAILAK 16, ZAPATUA

10:00-13:00 Mendaroko txokolategira bisita gidatuak zortzi laguneko taldeentzat.

10:30-12:30 / 17:30-19:30 Ukrainako jantzi tradizionalen erakusketa, jubilatuen ondoko lokalean.

10:00-14:00 RC autoen erakusketa, plazan.

10:00-14:00 Xake txapelketa, plazan.

10:30-14:00 Mahai-jokoen erakusketa, plazan.

10:30-13:00 Motanka panpinak egiteko tailerra, frontoian.

11:00-14:00 Skate erakusketa, Maite Maiora kirolgunean.

13:30 Bazkaria, frontoian.

17:30-19:30 Artozko aingeruak egiteko tailerra, frontoian.

18:00-20:30 Dawanada eta Ellie Jensen taldeen kontzertuak, plazan.

20:30 Azoka, frontoian.

22:30-02:00 Piztiak eta Aterkings taldeen kontzertuak, plazan.

■ UZTAILAK 17, DOMEKA

10:00 Aranerreka bailarara bisita gidatua.

10:30 Arku tiraketa.

10:30-13:30 Ukrainako jantzi tradizionalen erakusketa, jubilatuen ondoko lokalean.

10:30-13:00 Ukrainako koroak egiteko tailerra umeentzat.

13:30 Bazkaria, frontoian, eta oparien zozketa.

17:30 Ukrainako eskulanak egiteko tailerra.

17:30-18:30 Erromeria Mugipanderoarekin.

18:00 'El código de la nación' filmaren proiektzioa San Agustin kulturgunean.

19:00 Trikitipoteoa Ane Labaka eta Amaia Iturrioz bertsolariekin, Ormolan hasita.

20:00 Bertso afaria frontoian.

OTORDUETARAKO, ETA BEREZIKI HILAREN 14KO
AFARIRAKO IZENA EMATEKO TELEFONOA:

943 030 150

Gaurtik domekara bitartean ospatuko dituzte jaiak Urazandin

Hiru urtez ospatu zituzten Urazandiko jaiak 80ko hamarkadan, 1981etik 1983ra, baina auzotar guztien oroimenean iltzatuta geratu ziren jai haiek eta auzotar talde batek jaiak berreskuratzea erabaki du. Jai haien akordua parkeko elkarrizketa bat baino gehiago betetzen zuela ikusirik, jaiak berreskuratzeko ideia gorpuzten hasi ziren hainbat auzotar. Horri lotuta, 2019an sortu zuten Urazandi Auzo Elkartearen sorrerak ere ahalbidetu du jaien antolakuntza, izan ere, auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko bilereki esker auzo sentimendua indartu egin dela uste dute antolatzaileek, eta hain zuzen ere, bilera horietako batean hasi ziren jaiak antolatzen. Hasiera batean 2021erako aurreikusituzten festak, baina koronabirusaren eraginez, bertan behera geratu ziren iaz festa guztiak.

Aurten baina, dena prest dute, eta asteburu honetan ospatuko dituzte auzoko festak. Gaur



hasiko dira ekitaldiak, 19:00etan, Urazandiko parkean botako dituzten txapliguekin. Biharkoa ekitaldiz beteriko eguna izango da, eta besteak beste, herri bazkaria egingo dute Herri Eskolako patioan. Domekan bukatuko dira jaiak. Antolatzaileek argitu dute hasieran uztailaren 3an egitekoak ziren errifaren zozketa hilaren 10ean egingo dutela. Egitarau osoa agendan duzue.

Lizarrako larrain-dantza ikastaroa antolatu dute Elgoibarren



Lizarrako larrain-dantza ikastaroa antolatu dute Elgoibarren. Hiru saio izango dira guztira, uztailan hirurak, eta eskolak Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako dantza-gelan emango dituzte, laugarren solairuan. Uztailaren 13an (20:00), uztailaren 16an (11:00) eta uztailaren 18an (20:00) izango dira dantza-eskolak, eta interesa dutenek 20 euro ordaindu beharko dituzte izen-ematearekin batera, ikastaroa hasten den egunean bertan. Ikastarora lepoko zapi eramateko eskatu dute antolatzaileek.

Gaur hasiko da aire libreko zinea

Elgoibartarrek aire libreko zinez gozatzeko aukera izango dute uztailko asteburuetan, eta gaur izango da lehen proiektzioa: *Elkano. Lehen mundu bira*. Ume zein nagusientzako zazpi film emango dituzte bariku eta zapatuetan, euskaraz zein gaztelaniaz. Emanaldi guztiak Kalegoen plazan izango dira, 22:30ean.

Uztailak 9, zapatua

Padre no hay más que uno 2

Uztailak 15, barikua

Wonder Woman 1994

Uztailak 16, zapatua

Corre como una chica

Uztailak 23, zapatua

La pequeña Suiza

Uztailak 29, barikua

Greenland: el último refugiado

Uztailak 30, zapatua

Agur Etxebeste!

Giro onean ospatu dituzte jaiak Idotorben

Bi urteko etenaldiaren ostean, gogoz hartu dituzte jaiak Idotorben. San Pedro Egunean hasi zituzten festak zaindariaren prozesioarekin, baina ekitaldi gehienak astebururako antolatu zituzten. Jatorduak, umeentzako jolasak, zezentxoak, erromeria... Adin guztietako publikoak izan du gozamenerako aukerarik, baita lehiatzeko ere. Barikuan mus txapelketa jokatu zuten, eta Luis Kortaberriak eta Iñaki Mancisidorrek irabazi zuten. Ramon Rojok eta David Rojok bigarren egin zuten, eta Xabier Loiola eta Edu Sainz izan ziren hirugarrenak. Zapatuan, berriz, bolo txapelketa jokatu zuten, eta Jabier Osorok jantzi zuen txapela. Festei amaiera emateko, errifaren zozketa ere egin zuten. 1352 zenbakia izan zen lehen sariduna eta 5611 bigarrena.



Jaume Gubianasen kartelak iragarriko ditu San Bartolome jaiak

Elgoibarko Udalak aukeratu du 2022ko sanbartolomeetako egitaraua irekiko duen azala: Jaume Gubianas Escuderen *Guztion festa*. Aurtengo ediziora 20 kartel aurkeztu dituzte, 2020an baino lau gehiago, eta Andrea Arriola, Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeburuak, Jesus Mari Sarasua Ongarri Argazki Taldeko kideak, Encarni Migales Atabal Danborrada Elkarteko kideak eta Iñaki Raigoso Kokoe Komiki Taldeko kide ohiak osatutako epaimahaiak Gubianasen lana aukeratu du. 800 euroko saria jasoko du ilustratzaile kataluniarrak.

Haurren marrazki lehiaketako irabazleak, berriz, hauek izan dira: Nahia Baskaran Beristain, Lea Lazarobaster Heras, Yera Elizburu Hernandez, Nora Leonardo Oñederra, Leire Etxaniz Bereziartua eta Ibon Baskaran Beristain.



Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute, 19:30ean, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Uztailaren 15era arte dago

'Euskara ala Ezkara' jardunaldian izena emateko epea


Irailaren 3an egingo dute *Euskara ala Ezkara* jardunaldia Elgoibarren, Elgoibarko Izarrak eta Udaleko Euskara zein Euskara Sailek antolatuta. Elgoibar, kirola eta euskara uztartuko dituzte, eta horretarako eliteko kirolariak gonbidatu dituzte, besteak beste, June Loidi, Jokin Altuna eta Xabi Prieto. Interesdunek Elgoibarko Izarran (943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) edo Udal Kirol Patronatuan (943 744 415 / olaizagaharrera@hotmail.es) eman behar dute izena. Bi prezio zehaztu dituzte antolatzaileek: 15na euro ordaindu beharko dituzte pintxo-bazkarira geldituko direnek, eta 10na euro bazkaltzen geldituko ez direnek. Elgoibarko kirol elkarte eta entitateetako kideek ez dute ordaindu beharrik izango. Uztailaren 15a da izena emateko azken eguna.

K-Sarietako laburmetraiak, Mendaron

Zineklub eta zinemaldien arteko lankidetzatik sortutako K-Sarietako laburmetraiak ikusteko aukera izango da Mendaron, uztailaren 10ean. Laburmetrai hauek eskainiko dituzte: *Ama* (Huhezinema), *Mouse* (Animadeba), *Eggchild* (Zinetika) eta *Pasaia* (Hator Hator). 19:00etan izango da emanaldia, San Agustin kulturgunean, eta eragileekin solasaldia ere egingo dute.

Rüdiger eta Lady Finger gaur, Mendaroko Santa Kruz parkean

Irailaren 24rako iragarri dute Gararock jaialdia Mendaron, eta ekimen hori aurkezteko kontzertua antolatu du gaurko, Gararock taldeak. Santa Kruzko parkean izango da kontzertua, Azpilgoetan, 19:00etan hasita, eta bi gonbidatu berezi izango dira: batetik, Rüdiger taldea, eta bestetik, Lady Fingers DJa.



Georgiako eta Guinea Bissauko dantzariak hartuko dute parte Nazioarteko Folklore Jaialdian, Haritzekoekin batera

Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 22an izango da, 22:30ean, Maalako parkean. Aurten Georgia eta Guinea Bissauko dantzariak hartuko dute parte Haritzekoekin batera, eta modu horretan, haien herrialdeetako eta Euskal Herriko dantzez gozatzeko aukera izango dute ikusleek.


Guinea Bissautik **Netos de Bandim Kultur Taldea** etorriko da. 2000. urtean sortu zuen Haurren Lagunen Elkarteak, Bandim auzoko haur eta gazteen integrazio soziokulturala errazteko asmoz, eta taldearen helburu nagusia pobrezia larrian bizi ziren behartsuenei elkarbizitzarako espazio bat eskaintzea eta musikaren, antzerkiaren eta dantzaren bidez herritarren jardunbide egokiak irakastea da. Talde hau "ezinbestekoa" izan da Guinea Bissauko Ondare Kulturala babestu, baloratu eta zabaltzeko.



Univertyty taldea David Kikvadzek sortu zuen 1996an. Georgiako dantzariak bakarka, binaka eta taldeka aurkezten dituzte beren dantzak. Berezko grazia eta xarma du, ballet klasikoarekin aldera daitekeena, non emozio eta sentimendu bakoitzak bere mugimendu tradizionala duen. Samurrak eta lasaiak dira, urrats txikiak egiten dituzte eta dantzariak irrist egiten dutela ematen du.



Haritz euskal dantzari taldeko kideek bi zatitan bereiztuko dute aurtengo jaialdia, pandemia aurretik egiten zuten moduan. Lehen zatian, Erronkari bailarako Ttun-ttuna dantzatuko dute. Dantza hauek egiteko erabiltzen dituzten jantziak, Erronkarin erabili ohi zituzten arropak dira, hotzari aurre egiteko modukuak. Bigarren zatian, berriz, pandemian zehar etxean ikasten hasi ziren Kortesco dantzak plazaratuko dituzte. Nafarroako Kortesekeo herrian Mikel Deuna egunean dantzatzen dira makil-dantza hauek. Kortesekeo Paloteadoan egiten diren dantzak honakoak dira: makil dantzak, zinta dantzak eta kortesiak.



IÑAKI KONDE

Elgoibar BHIko ikasbidaiko begiraleetako bat

✍ Ainara Argoitia

Ez du aurkezpenik behar Elgoibarren, edo bai, hainbeste gauzatan ibili dena orain zertan ari den jakin nahiko duenik izango delako. Irakaskuntzan jardun zen soldatapean lanean 40 bat urtez eta ardura-postuetan eman zituen urte horietako asko. 2003tik 2009ra, adibidez, Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteko (Ikaslan) presidente izan zen. Baina bere izena herrigintzan diharduen hamaika eragileri lotuta ere ageri da. Euskararen militantea da, eta 2011az geroztik Elgoibarko Euskaltzaleon Topaguneko presidentea da -bigarrenkoz-. Elgoibarren bake epaile bila hasten denak ere bera topatuko du atean, eta petoak jantzita ere sarri ikusiko duzue han-hemen, kontu ezin beste ordu eskaintzen dituelako boluntarioran. Baina badu alderdi bat, berezia eta harrigarria ere bai askorentzat: 30 bat urtez aritu da ikasbidaia prestatzen.

“Hezkuntzako zehar-lerro guztiak jartzen dira praktikan ikasbidaia antolatzen”



Maltan izan zara ikasbidaian ehundik gora gazte hartuta. Gutxik hartu nahi izaten duten ardura hartu duzu berriro ere.

Bai. 26 bat urte nituela joan nintzen estreinakoz eta 71 dauzkat orain. Azkeneko bi urteetan, dena den, Feel My Way enpresak antolatu du Elgoibarko Institutuko ikasbidaia, eta ni begirale lanetara joan naiz, beste hiru lagunekin batera. Feel My Way enpresan Nora Kortaberria da ikasbidaian arduraduna, Mondragon Unibertsitatean LEINN ikasketak egindako elgoibartarra, eta Elgoibarko institutuko ikasbidaia ez ezik beste ikastetxe batzuetakoena ere antolatzen du enpresa honek. Ni, esan bezala, begirale lanak egiten aritu naiz Alex Agirregabiria, Garazi Letamendia, Kortaberriarekin batera. Urte askoan bakarrik joan izan naiz ikasbidaira ehundik gora ikasle hartuta, eta esan beharra daukat zorionez zorte handia izan dudala beti. Zorionekoa sentitzen naiz, baina uste dut zortea ere lotua dagoela askotan norberak hartzen duen jarrerarekin. Nik ez dut denbora galtzen gauza txarrei bueltaka, eta tokatzen zaizkidanean saiatzeko naiz berehala ahazten.

Irakaskuntzan erretiroa hartuta ere, jarraitzen duzu zeregin horretan. Zerk lotzen zaitu ikasbidaira?

Bai, nik uste dut gurasoek bakarrik ulertzen didatela. Bizipoza ematen dit honek. Beti izan



naiz sartu naizen lanetan dena ematekoa, buru-belarri aritzekoa, eta 17-18 urteko gazteekin lan egiteak hunkitu egiten nau. Sentimendu horrek lotzen nau. Joan zen urtean kantua ere sortu zidaten! Ikusteak zein erraz kontaktatzen dudan nire biloba izan zitezkeenekin, zein harreman polita dugun, gauza handia da. Aurten ikasbidaira etorri diren gazteetako batzuen aittitta-amamak nire adinekoak dira, eta gauza kuriosoak sortzen dira halakoetan. Atera izan ditut gazteekin selfieak aittitta edo amamari bidaltzeko eta bueltan batek baino gehiagok erantzun die bilobei 'zaindu Iñaki'.

Adin horretako gazteak dituzten guraso askori entzuten diegu zaila zaiela zuk hain erraz lortzen duzun harreman hori lortzea. Non dago sekretua?

Ez dut aparteko gauzarik egiten, baina esango nuke sentitzen duzun hori transmititzean dagoela giltza. Gustura ibiltzen naiz. Haserretzen gara, karakterra ere handia daukadalako, baina beraingan interesa eta arreta jartzen dudala sentitzen dute eta estimatzen dute. Ospitalera lagundu behar zaiela, poltsaren bat lapurtu digutela eta Poliziara joan behar dela salaketa jartzera... 24 orduz egoten naiz haiekin. Denbora eskaintzen diet, eta esango nuke pertsonok beti estimatzen dugula beste norbaitek guri denbora dedikatzea. Gazteak eurentzat hain garrantzitsuak diren gaiei buruz hizketan hasten

"Taldeko eta konfiantzazko ikusten naute, badakitelako daukadan onena jarriko dudala eurek ondo pasa dezaten"

zaizkidanean, sentitzen dut badutela nirekiko konfiantza bat ere. Taldeko eta konfiantzazkoa ikusten naute, badakitelako daukadan onena jarriko dudala eurek ondo pasa dezaten.

"Musutruk egiteak ez du esan nahi ezer jasotzen ez denik bueltan". Zeurea da esaldia.

Bai, ordain ekonomikoa jasotzea baino askoz gauza hobeak jasotzea badago, eta nik beti sentitu dut hori boluntario-lanean: asko jaso dudala bueltan. Uste dut euskal herritarrok oso gurea dugula hori, auzolanaren kultura. Gure kulturak bi adierazpide nagusi ditu: bata da euskara, eta bestea, elkarlana. Elkarri laguntze hori beti egon da gure baserrietan. Ondo edo gaizki egin, egiten duena beti saritzen dugu, borondatea eskertzen badakigulako. Urte asko eman ditut atzerriko Lanbide Hezkuntzako eskoletako irakasle eta ikasleak ekartzen dituen proiektu batean lanean eta nik Euskal Herrian ikusten dudana ez dut beste leku askotan ikusi, ez behintzat hemen bezain indartsu. Ibili naiz

Frantzian, Ingalaterran, Danimarkan... eta ikusi dut herrialde horietan proiektu asko sortzen dituztela auzolanean, baina gehienez urtebeteko bidea eginda denak instituzionalizatzen direla. Hemen, ez.

Zer da zuretzat herrigintza?

Gauza handia da. Joan zen astean Nahaste Borraste izan genuen Elgoibarren, herriko proba entzutetsua, eta duela gutxi Karakate Bizirik plataforma ere sortu dute beste batzuek. Zenbat jende dago azkeneko bi ekimen horien inguruan? Askok. Badut gogoia Elgoibarri bizitasuna ematen dioten elkarteetan eta taldeetan zenbat jende ari den zenbatzekoa. Lan hori guztia kuantifikatu behar dugu. Askotan esaten dugu jendea ez dela mugitzen, militantzia apalduta dagoela, baina inor jarri al da pentsatzen zenbat jende ari den egunero-egunero beste batzuentzat edo denontzat musutruk lanean? Zer da Sanlo? Zer da Club Deportibo? Zer dira beste elkarte asko eta asko? Zenbat jende ari da bateko edo besteko errifak saltzen? Zenbat jende ari da gauza zail horretan, beste batzuentzat edo elkarte batentzat eskatzen?

Ikasbidaia prestatzeko lanari ere aparteko garrantzia ematen diozu. Nola antolatzen zarete?

Iraillean hasten gara lanean. Behar dugun diruaren %30 beraiek lortzen ahalegindu behar direla esaten diet eta hori lana dela. Banatzen ditugu ardurak, erabakitzen ditugu egingo ditugun ekintzak, aukeratzen ditugu zeregin bakoitzerako arduradunak eta haien lana izaten da gero gainerako guztiak lanean jartzea, eta hori dena, egiten dugu modu asanbleario batean. Hezkuntzan zehar-lerro direnak ukitzen dira lanketa horretan. Sortzen zaizkien zailtasunentzako irtenbideak taldean bilatzen dituzte, hilean behin-edo areto nagusian egiten ditugun bileretan. Aurten ez dugu egiterik izan, COVIDagatik, baina bilera horiek oso garrantzitsuak dira. Gazteek askotan uste dute munduan burbuila bat direla, baina ikasbidaia prestatzen ikasten dute gauzak adosten, ikasten dute gauza batzuk isiltzen, ikasten dute beste batzuentzako lan egiten, ikasten dute ezer ez datorrela zerutik...

Zein izaten da zure lana bilera horietan?

Hitz egiten diet ikasbidaiaren filosofiaz,

baina gero haiek erabakitzen dute zer egin eta nola. Ni ondoan izaten naute behar dutenerako, eta bilera horietan errespetuz hitz egiten dela eta halakoak zaintzeko. Gazteei asanbleen kontzeptua berria zaie. Ez daude ohituta gauzak talde handitan erabakitzera. Talde txikitik mugitzen dira beraiek eta askotan ez dute apenas harremanik beste talde batzuetako gazteekin. Eta bileren dinamika hasten dutenean konturatzen dira ikusi ere egin ezin zituztenak jatorrak direla, ez direla haiek uste bezain motzak, eta sortzen da harreman polit bat. Bitxia egiten zait ikustea bi urtean elkarri hitzik egin gabe egon direnak zein lagun egiten diren ikasbidaia prestatzen. Horregatik iruditzen zait honi eutsi behar diogula, bizitzarako oso irakaspen ona delako. Nirekin estreinako ikasbidaian izan zirenek 60-61 urte dituzte eta denek esaten dute esperientzia bitala izan zela eta ikasbidaiak lagatzen duen arrastoa betirako dela. Aurten hori falta izan



da, asanbleen dinamika, eta baneukan ardura puntu bat, baina hala ere, ikusgarria izan da han nola konpondu diren, nola hartu duten elkar eta nola babestu diren. Sekulako jende eredugarria dugu.

Aurten, baina, "ukituta" itzuli zarela aitortu duzu.

Bai. Aurten gazteak iritsi eta hiru egun geroago iritsi nintzen ni Maltara, goizaldeko ordubietan, eta iritsi nintzean sekulako sorpresa nuen zain. Han neuzkan denak pankarta eta abarrekin hoteleko atean zain. Hunkigarria izan zen oso, eta erabat harrapatu ninduten. Izan dira gertaera batzuk gogorak egin zaizkidanak ere. Maltak baditu leku ikusgarriak, baina bada parrandarako lekua ere, eta asteburuetan, bertako gizon batzuk agertzen dira parrandarako kalera, beren esku luzeak paseatzera. Aurten inoiz baino nabarmenagoa izan da eta insistenteagoak izan dira.

Ez da izango, orain, zorionez sentsibilizatuago gaudela halakoak salatzeraz?

Bai, hori ere bai, baina egia da niri orain arte ez zaidala etorri inor larrituta, onartezina zela esanez eta 'orain zer?' galdera eginez, eta ez dakit zer esan. Saiatu naiz askotan destinoa aldatzen, mila leku daudelako joateko eta ez zelako lehenengo aldia izango destinoz aldatzen duguna, baina Malta mitifikatuta dute gazteek. Hala ere, ikustekoa izan da taldekoek eurek, neska eta mutil, nola babestu duten elkar. Eta poztu naiz gure mutilek erakutsi duten jarreragatik ere. Mutilen aktibazio hori behar dugu, erasoak gizonezkoek egiten dituztelako. Poztu nau, era berean, izan diren zailtasunen aurrean gazteek erakutsi duten jarrera baikorrak, gazteen alaitasun horrek.

Gazteez ari garenean, badago negatibotzat ditugun kontu asko haiei lotua ikusteko joera. Gazteak dira berekoiak, alferrak, ez dira batere ekintzaileak... Zuk beste modu batean hitz egiten duzu haietaz.

Ez nagoelako konforme guztiarekin. Aurreko astean mundu osoko hogeita bost bat gazterekin egon nintzen Lanbide Heziketako World Federation of Colleges and Polytechnics egitasmoaren baitan, eta nik garbi daukat gaztea noblea dela, zintzoa dela eta guk gaztetan genituen baino gaindituago dituztela aurreiritziak, errazago harremantzen direla

"Gazteek askotan uste dute munduan burbuila bat direla, baina ikasbidaia prestatzen ikasten dute gauzak adosten, ikasten dute gauza batzuk isiltzen, ikasten dute ezer ez datorrela zerutik..."

ezberdinekin. Ekintzaitetzaz gauza asko esango nituzke, baina denak ezin daitezke esan. Gure garaian ikasten ez zutenek ere lana zeukaten, eta baldintza horretan ekintzaile izatea askoz da errazagoa. Ez zen gaur besteko presiorik ere. Lehen tornua erosten zuenak bazekien beti egongo zela norbait bere piezak erosteko. Orain ez dago hori, eta gainera, bestelako presio hori, burokraziak sortzen dituen zailtasun guztiak, ikaragarri ugaritu da. Badago, bestetik ere, jakina. Gaur egungo gazte asko oso eroso bizi dira dutenarekin, esfortzuaren kultura ere galdu da, eta gainera, guk izan genuenaren aldean, aisialdia eskaintza ere handia da gaur. Pilota, mendia eta futbola genituen guk, eta orain askoz zabalagoa da eskaintza hori.

Gizartea aldatu egin da, eta gazteak ere aldatuko ziren, ala? Zertan?

Erreparo pixkat ematen dit arin erantzuteak, baina laburrean esango nizuke gazteek nahi zutena eta bi egiten zutela lehen ikasbidaian eta ni ez nintzela erdiaz ere enteratzen. Orain, berriz, dena kontatzen dute, egin aurretik askotan. Azalpen ezberdinak izan ditzake horrek: batetik, umeagoak direla orain, beste modu batera hezi eta hazi ditugulako, eta bestetik, Francoren itzalpean hasitakoak ohituago zeudela dena ezkutuan egitera. Bestetik, esango nuke ezberdina den hori ulertzeko ahalegin handiagoa egiten dela gaur, denbora emanez gero. Eta iruditzen zait balio handia dela hori. Gaztetasunari lotutako beste mila kontu beti izango ditu gazteak: beti izango da errebeldeagoa, ez ditu gauza denak guk nahi bezala egingo eta beste hamaika kontu, baina gazteekin lan egiten asko ikasten dugu helduago garenok ere. Nire adinekoei galdetu etorkizunaz eta konturatuko zara askoz ezkorragoak direla. Adinarekin lotutako kontua da hori, nik uste, baina bizitza alai bizitzeko da.

Ioritz Leiaristik irabazi du LaRoita kuadrillakoen erronka, eta errekorra ezarri du



 Aitor

Lehenengo aldia arrakastatsua denean, sortutako ikusmin horri eustea bera erronka izan ohi da, eta erronka hori aise gainditu dute aurten ere La Roita kuadrillakoek. Apustu berezia antolatu zuten zapaturako, iazkoaren bidetik: Antxon De La Arada, Ioritz Leiaristi eta Ivan Rogel aritu ziren lehian eta egin beharreko lana iazko bera izan zuten: Mutrikuko portuan 600 metro igerian egin, portuan bertan bizikleta hartu eta Kalbarioko gainetik Elgoibarreraino etorri, eta azkenik, korrika lotu Kalegoen plazatik Karakateko tontorrera arteko bidea.

Lan hori egiten azkarrena, Ioritz Leiaristi izan zen, eta proba irabazi ez ezik, iazko irabazleak, Iker Odriak, ezarritako errekorra ere ondu zuen, 1:23:56ko denbora eginda (Odriak 1:24:50eko denbora behar izan zuen). Ivan Rogel izan zen bigarrena, lehenengoarekiko 5:43ra iritsita, eta Antxon De la Arada sailkatu zen hirugarren.

Erronkak ikusmin handia sortu zuen, eta ikusle asko bildu ziren Karakate gainean. Festa baina, ez zen han bukatu, aurtengoan egun osoko egitaraua prestatu baitzuten, erronkaren harira. Herri bazkaria egin zuten Karakate jatetxean, Mautitxa txarangarekin kalejira eta iluntzean kontzertua izan zuten gaztetxean. Egun borobila, ezbairik gabe, LaRoitakoentzat. Argazki gehiago: barren.eus



Iker Zabaletak irabazi du Javier Ezenarro Oroitzarrea eta Eneko Ortega elgoibartarra iritsi da bigarren, denbora berera



Javier Ezenarro Oroitzarrea jubenilen mailako lasterketa jokatu zuten zapatuan Mendaron, 95 kilometroko proba. Arribnietako eta Kalbarioko gainak igo zituzten txirrindulariek eta Atracciones Sanz taldeko Iker Zabaleta izan zen azkarrena, 2:22:41eko denbora eginda. Hala ere, aipagarria da Elgoibarko Lagun Taldeako (BESA) Eneko Ortegak egin zuen lasterketa. Lasterketa buruan joan zen uneoro, bi-hiru laguneko taldean, eta azken esprintean hartu zion aurrea Zabaletak. Sasoi betean dagoela erakutsi zuen berriz ere Ortegak eta gutxiatik ez zuen lortu irabaztea. Kalbarion behera Iker Zabaletarekin batera jaitsi zen, baina Sasiolatik Mendarora bidean karranpek estu hartu zuten mutila. Hala ere, azken-azkenera arte eutsi zion Zabaletarekin zuen lehiari, eta esprintean erabaki zen lasterketa. Mendiko saria Iker Zabaletarentzat izan zen, eta taldekako saria, berriz, Atracciones Sanzentzat. Elgoibarko Lagun Taldeaketik jakinarazi dute asteen Gipuzkoako selekzioarekin lehiazeko hautatu dutela Eneko Ortega.

Irailaren 17rako antolatu dute Debabarreneko orientazio raida

Bi urteko etenaren ostean, irailaren 17an jokatu dute Debabarreneko VI. orientazio proba, eta aurtengoak Deban izango ditu hasiera eta helmuga. Bi proba antolatuko dituzte: batetik, Abentura bezala ezagutzen den proba, bikoteka egiten dena, 7 orduko iraupenarekin eta bestea, Familia Raida, 2 eta 5 pertsona arteko taldetan egiten dena, 2 orduko iraupenarekin. Raid bat orientazio proba bat da, eta helburua mapa baten markatutako puntu gehienetatik pasatzea da, probak irauten duen bitartean. Dena dela, bakoitzaren ahalmenaren arabera proba moldatzeko aukera egongo da. Informazio gehiagorako eta izena emateko: <https://debabarrenaraid.wordpress.com/>

Paula Calvok brontzeko domina eskuratu du Gipuzkoako Udako Txapelketan, absolutu mailan



Infantil, junior eta absolutu mailako Igeriketako Udako Gipuzkoako Txapelketak jokatu dituzte, eta Eibar Igerixan taldeko Paula Calvo elgoibartarrak hiru domina irabazi ditu: urrezkoa, zilarrezkoa eta brontzekoa; horietako bat maila absolutuan. Eibarko igeri taldeko ordezkariak hamasei domina irabazi dituzte guztira, eta horietako hiru Paula Calvok eskuratutakoak izan dira. Batetik, haurren mailan 200 metro bizkar lasterketa irabazi du eta txapelkunorde izan da 100 metro libreko proban. Azkenik, absolutu mailan hirugarren egin du, brontzeko domina eskuratu.

Madarixatik igaroko da gaur gauean Ehunmiliak 168 kilometroko lasterketa

Gaur arratsaldeko seiretan abiatuko dira Ehunmiliak lasterketakoak Beasaindik eta Gondo bidean 22:30ak aldera pasatuko dira lehenengoak Madarixako gainetik, kontuan izanda lasterketako 43. kilometroa dela. Guztira 168 kilometroko eta 11.000 metroko desnibel positibodun ibilbidea egin beharko dute partehartzaileek eta antolatzaileek aurreikusten dute larunbatean, 17:00ak alderako, iritsiko dela aurrenekoa helmugara. 2019an jokatu zuten azkeneko proba hau eta orduko hartan Jon Aizpurua Larrañagak irabazi zuen gizonezkoetan, 22:21:54ko denbora eginda, eta Ewa Majek emakumezkoetan, 27:41:47ko denborarekin. Guztira, 515 lagunek zuten Ehunmiliak ultrailerako izena emateko aukera, eta horien artean izango da Elgoibarko eta Mendaroko korrikalaririk ere. Izena emandakoen artean daude, esaterako, Borja Rodriguez mendararra eta Angel Quintana eta Iban Fernandez elgoibartarrak.



Ehunmiliak lasterketak bertsio laburragoak ere baditu: G2 haundiak (88 kilometro eta 6.000 metroko desnibel positiboa duena) eta Marimurumendi (42,195 metroko luzera eta 2.300 metroko desnibel positiboa duena). G2 haundikoak gaur, 23:00etan, irtengo dira, Beasaindik, eta Marimurumendikoak, berriz, igandean, 08:00etan.

Donostiako Fabrika Bandera irabazi du Leire Garatek arraunean Oriorekin



Leire Garate elgoibartarrak Donostiako Fabrika Bandera irabazi zuen domekan Orio-Orialki emakumezkoen taldearekin. Bezperan, zapatuan, ibaian jokaturako erlojuaren aurkako estropadaren ondoren, domekan itsasoan aritu ziren. Itsaso bihurria zegoen, eta Nadeth Agirreren patrontza lana erabakiorra izan zen estropada erabakitzeke. Izan ere, brankaz Orio

eta Arraun Lagunak pare-parean ibili ziren, baina poparean aurre hartu zuten oriotarrek (11:17:54). Donostia Arraun Elkartekoak sailkatu ziren bigarren lau segundu eta 58 ehunenera (11:22) eta Nortindal Donostiarra Ur Kirolak 100 traineruak egin zuen hirugarren, 11:47ko denbora eginda. Laugarren Tolosaldea arraun elkarteak sailkatu zen (11:48).

Sanbartolomeetako Goitibehera eta Drift Trike lehiaketako araudia argitaratu du Udalak

San Bartolome jaietako egitaraua datozen egunetan aurkeztuko badute ere, Elgoibarko Udalak Goitibeheren eta Drift Trike lehiaketako araudia ezagutzera eman du aste honetan. 14 urtetik gorakoek hartu dezakete parte, eta izena emateko epea proba hasi baino ordu erdi aurretik itxiko da. Irteera izen-emate ordenaren arabera egingo da, eta goitibehera edo drift trike bakoitzak behin bakarrik parte hartu ahal izango du. Ikusleek ezingo diete parte-hartzaileei bultza egin, eta denbora ofizialak antolatzaileek hartuko dituzte. Kaskoa ezinbestekoa izango da.

Izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko, eta nahi duenak ondorengo lotura honetan eman dezake: <https://labur.eus/Goitibeheraktrike>. Araudiko zehaztapen guztiak irakurtzeko: www.barren.eus.



Futbol Egokituaren Topaketa egin zuten zapatuan, Mintxetan



Gipuzkoako hainbat herritako gazte minusbaliatuak elkartu ziren zapatuan Mintxetan, futbol egokituaren topaketa. Ospakizunean alaitasunak eta kirolak bat egin zuten Mintxetako berdegunean, eta oso giro onean joan zen arratsaldea. Guztira 50 bat jokalarik hartu zuten parte, C.D. Elgoibarko teknikari eta hainbat jokalariren laguntzarekin. Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak sustatutako ekimena da hau, eta beste hainbat herritan ere egin izan dute. Helburua da ume zein gazte minusbaliatuei futbolaz gozatzeko aukera ematea. BESA eta Alcorta Forging Group izan ziren babesleak, eta Udalaren, CD. Elgoibarren eta Kirol Patronatuaren laguntza ere izan zuten. C.D. Elgoibarrek eskerrak eman dizkie ondorengo guztiei, beraien konpromisoari esker zapatuko ekimena posible izan zelako: Mariano Lopez, Amets Isasti, Ander Mugerza, Gorka Mugerza, Yolanda Mateos, Mikel Elkoroiribe, Estanis Mugerza eta Infantil Txuria taldeko jokalariei.

Sanloren urteko batzarra, uztailaren 22an

Sanlo Eskubaloi Taldeak uztailaren 22an egingo du bazkideen urteko batzarra. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta ondorengo gaiak jorratuko dituzte: 2021/22 denboraldiko kirol emaitzak, 2021/22 denboraldiko bestelako

ekintzak, balantze ekonomikoa, 2022/23 Kirol denboraldirako aurreikuspenak, bazkide kuotak eta 2022/23 denboraldirako aurrekontua. Azkenik, galdera eta eskaeretarako tarte zabalduko dute.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia daukat eta berehala hasteko moduan nago.
643 928 530 (Digna)

Adinekoak zein gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago, baita asteburuetan ere.
643 071 900

Garbiketak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
652 020 464

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo jardun erdiz. Esperientzia eta beharrezko titulua ditut. Berehala hasteko moduan nago.
632 415 374

Eskaintzak

Mendekotasuna duen neska bat zaintzeko pertsona behar da. Titulua izatea, ezinbestekoa.
650 481 345

Pertsona euskalduna behar da umeak zaintzeko. Arratsaldeko ordutegian izango litzateke, astelehenetik ostiralera.
628 115 677

Edergintza zentro baterako estetizista behar da. Esperientzia baloratuko da. Euskaraz jakitea, ezinbestekoa. Bidali cv alamarsan@gmail.com helbidera.

OSPAKIZUNAK

1960an jaiotakoen bazkaria, irailaren 24an. 12:30ean Zubi Ondo elkartearen batuko dira, argazkia atera eta mokadutxo egiteko. 15:00etan Sigman bazkalduko dute. 60 euro sartu behar dira irailaren 10erako: ES71 3035 0007 23 0071138822

Sigma auzokoen bazkaria, uztailaren 23an, Sigmako frontoian. Izena emateko 50€ sartu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan, uztailaren 10erako: ES53 3035 0007 22 0070075881

BESTELAKOAK

Nahaste Borraste proban bizikletako oinetakoak galdu nituen. **652 727 631**

DBH4-ko liburuak erosiko nituzke.
637 587 811 (Amaia)

Balazta, saskitxo eta jarlekua dituen helduentzako taka-taka saltzen da, berri-berria. Baita ere berri samar dagoen aluminiozko helduentzako beste taka-taka bat, etxean ibiltzeko egokia.
659 329 118



1958ko erretratu zahar bat aurkitu dut Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor edukiontzien ondoan.
656 756 226




 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatuen Administrazioaren Kontseilua</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Komunitateko kontuan ez daukagu erreserbako funtsik aurreikusita, eta jakin nahi nuke derrigorrezkoa ote den edo komunitateari exijitu diezaiokegun halako zerbait sortzea.</p> <p>Erreserbako funts horrek helburu bakarra du: Etxaldearen mantentze-lanak edo berritze-lanak -ohikoak nahiz ezohikoak- egin ahal izateko baliabideak izatea komunitateak. Eraikinaren eta bertako zerbitzuen mantentze egokirako lanak egitea exijitzen du legeak eta funts hori izateak bermatzen du komunitateak legeak ezarritakoa bete ahal izatea. Hau da, eraikinaren estrukturarari, estankotasunari eta segurtasunari eta bertan bizitzeko baldintza egokiei dagozkien baldintzak betetzen direla ziurtatzea.</p> <p>Erreserba funtseko dirua, beraz, helburu horretarako erabili behar da. Ezin da diru hori etxejabe batzuen zorrek sortutako likidezia arazoak konpontzeko erabili. Urteko aurrekontua egiteko garaian erabakiko da zenbat diru jarri beharko duten etxejabeek erreserba horretarako.</p> <p>ONDORIOA: Erreserba funtsa eraikinaren mantentze eta berritze lanetarako erabiliko denez, etxejabe bakoitzak jarri beharreko diru-kopurua partaide-kuotaren arabera koad izango da.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Unai**, gaur 6 urte bete dituzulako! Muxuak etxekoen eta familia guztiaren partez, bereziki, Gorkaren partetik.



Zorionak, **Paul**, astelehenean 3 urte bete zenituelako! Muxu handi bat, familiakoen partez.



Zorionak, **Izaro!** Astelehenean 5 urte potolo! Primeran pasa eguna! Muxu eta besarkada handi bat etxeko guztion partetik.



Zorionak, **David**, bihar 8 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta lagunen partez.



Zorionak, **Alain!** 7 urte handi! Topera ospatuko dugu, futbolero!



Zorionak, **Lara** uztailaren 5ean 8 urte bete zenituelako, eta zuri, **Danel**, abuztuaren 7an 10 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiako guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Santana eta **Sanbartolome** jaietako argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:



e-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus
Barreneko bulegora ekarri:
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

DESKONTUAK

%20ko deskontua ehunetan!

EXPRESS ESKAINTZAK!

3KFE563WI
BALAY
HOZKAILUA

599 €



- Neurriak: 186 x 60 x 66
- Ez frost
- Eko funtzioa
- Kontrol elektronikoa eta temperaturekiko independentea
- Errendimendu handiko teknologia, inbenter konpresorea duena.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

8 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'La boda de rosa'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

19:00 Gararock jaialdiaren aurkezpena: Rüdiger musika taldea eta Lady Fingers DJaren emanaldia, Mendaron, Santa Kruz parkean.

22:00-02:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria. Azkaraten.

10 DOMEKA

19:00 K-sarietako laburmetriak. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

11 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Umore matxista'. Zure indarkeriak ez dit graziarik egiten. Loredi Salegik gidatuko du saioa, Lilan.

14 EGUENA

19:00 Meditazio saioa. Isiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

17:30 'Zerua eta garia'. Garagardo feriaren irekiera Mendaron. Egitarau osoa erreportajea.

15 BARIKUA

20:00 Kontzertua: Gabi eta Alfontso bikotea eta K.G.A.T. taldea. Maalako parkean Elgoibar Bizirik plataformak antolatuta.

22 BARIKUA

22:30 Nazioarteko Folklore jaialdia. Haritz dantza taldeak antolatuta, Maalako parkean.

Urazandiko jaiak

8 BARIKUA

19:00 Jaiak hasteko, suziri traka, Urazandiko parkean. Ondoren, dardo, txapel, "chaves" eta igel toka txapelketa. Herri Eskolako patioan.

22:30 Imanol DJa. Herri Eskolako patioan.

9 ZAPATUA

10:00-17:00 Auto klasikoek kontzentrazioa. Herri Eskolako patioan.

11:00 Historiaurrera bidaia. Jose Julian Marquezen erakustaldia. Herri Eskolako patioan.

Ondoren, trikitilarien kalejira, auzoan zehar.

15:00 Herri bazkaria, Herri Eskolako patioan.

17:00 Imanol DJa, Herri Eskolako patioan.

17:30 Zezentxoak, Ruso Zezenak-en eskutik. Herri Eskolako patioan.

19:00 Kalejira, Mendaroko Bizi Poza txarangarekin.

23:00 Imanol DJa. Herri Eskolako patioan.

10 DOMEKA

12:00 Tortilla txapelketa, herri-jokoak, puzgarriak. Herri Eskolako patioan.

17:00 Txokolate jana, BM supermerkatuak eskainita. Urazandiko parkean.

19:00 Jaien amaiera iragartzeko suziri traka.

Eta, Debabarrenean zer?

Debako Aitzuri abesbatzaren kontzertua.
Uztailak 9, 20:00etan,
Debako elizan

Debako abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, Santa Maria elizan, Amaia Zipitria pianojolearekin batera. Xabier Carrillo izango da zuzendaria.



Aire libreko zinea
(Kalegoen plazan)

'Elkano: Lehen mundu bira'
8 barikua: 22:30

'Padre no hay más que uno'
9 zapatua: 22:30

'Wonder woman 1984'
15 barikua: 22:30

'Corre como una chica'
16 zapatua: 22:30

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>8 BARIKUA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>9 ZAPATUA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>	<p>10 DOMEKA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>	<p>11 ASTELEHENA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Barrenetxea</p>
<p>12 MARTITZENA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>13 EGUAZTENA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Yudego</p>	<p>14 EGUENA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>15 BARIKUA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>
<p>16 ZAPATUA Egunez ■ Fernandez ■ Barrenetxea Iluntzean ---</p>	<p>17 DOMEKA Egunez ■ Fernandez Iluntzean ---</p>	<p>18 ASTELEHENA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>	<p>19 MARTITZENA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Barrenetxea</p>
<p>20 EGUAZTENA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>21 EGUENA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>22 BARIKUA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>23 ZAPATUA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>

■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142

■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soralueze) 943 751 638

■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soralueze) 943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106

Osasun gida

aldaz
horts klinikak
RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22 Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berrogokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com
RPS 177/18

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar
943 531 953
669 565 745

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192

leku eder
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



Mara
Mugika
Lopez

5 urte, Elgoibar

"Ostadarra eta adar bakarra"



Sara
Izaguirre
Rejas

4 urte, Elgoibar

"Toboganak"






Itziar Konde Isasi-Isasmendi

2022ko uztailaren 5ean hil zen, 97 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure artean geratuko dira
zure maitasun eta irriparrak.
Besarkada bana, tia Itziar,
bihotz-bihotzez.***

Kondetarrak



I.URTEURRENA

Tio Juan Mugerza Garagarza

"Belaustegi"

2021eko uztailaren 2an hil zen, 80 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, uztailaren 10ean, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Zure ahotsa beti kantari,
eta zure irribarrea
beti gogoan izango dugu.***

Belaustegiko familia

I.URTEURRENA


Maria Luisa Urrutia Etxabe

"Martinaudi"

2021eko uztailaren 17an hil zen, 86 urte zituela, Iruñean.

***Beti izango zara
argia iluntasunean.
Asko maite zaitugu amama.***

Etxekoak





HARITZ E.D.T.

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXV. FOLKLORE JAIALDIA

UNIVERSITY - *FLYING GEORGIANS*
NETOS DE BANDIM - *GUINEA BISSAU*
HARITZ EDT - *EUSKAL HERRIA*

2022ko uztailaren 22an, ostirala

22:30ean, MAALAKO Parkean

